

**SOPELAKO UDALAK 2018KO APIRILAREN
26AN, ARRATSALDEKO 19:30EAN,
LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA
CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA
POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE
SOPELA, EL DIA 26 DE ABRIL DE 2018, A
LAS 19:30 HORAS**

BERTARATUAK / ASISTENTES

LEHENDAKARIA / PRESIDENTE ALKATEA / EL ALCALDE

Gontzal Hermosilla Ramos

ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE

Leire Basauri Castellanos (EAJ-PNV)
María Teresa Fernández García (PSE-EE (PSOE))
Naiara Ibarzabal Arrasate (EAJ-PNV)
Felix Gabarain Amenabar (EAJ-PNV)
Emilio Ramos Rodríguez (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES

Francisco Javier Intxaurza Zarandona (EAJ-PNV)
Belén Urbietta Pérez (EAJ-PNV)
Guillermo Vío Domínguez (EH BILDU)
Iratxe Moreno Fernández (EH BILDU)
Ander Moreno del Campo (EH BILDU)
Ione Aurrekoetxea Yangüas (EH BILDU)
Juan María Sánchez Conde (EH BILDU)
Miguel A. Tapia Trigueros (EH BILDU)
Jon Andoni Gerediaga Bilbao (DB-TU)
Juan Ignacio Del Vigo Cruz (ORAIN)
Manuela Ruiz Vivanco (Atxikigabeko zinegotzia) (Concejala no adscrita)

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

Laura Arana Aguirre

Alkate jaunak, osoko bilkura hasi aurretik, bigarren puntua, “2018ko Kontu Orokorra onartzea”, gai-zerrendatik kendu egingo dela eta hurrengo –maiatzeko– osoko bilkuran aurkeztuko dela esan du.

Por parte del Sr. Alcalde y antes de iniciar la sesión plenaria se indica que, en relación al segundo punto, “Aprobación de la Cuenta General del Ejercicio 2018”, se retira del Orden del Día y pasará en el próximo Pleno del mes de Mayo.

ATAL ERABAKITZAILEA

Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia

1.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. 61/2018 ESPEDIENTEA:- Bizkaiko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 40. eta 41.2 artikuluekin bat, eta betebeharra aitortu aurreko gastu baimenik ez dagoela eta.

Aztertu da Ekonomia eta Ogasuneko Informazio Batzordearen proposamena.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vasco udal talde politikokoa den Emilio Ramos jaunak hartu du hitza, betebeharren aitortpena azaltzeko.

Ondoren, Sopelako EHBildu udal talde politikokoa den Guillermo Vío jaunak hartu du hitza, honako hau esateko: Gai horrek aurrekontuan partida bat esleituta zuen. Gastuak baimenduta eta xedatuta eginez gero, ez zen beharrezkoa izango betebeharraren aitortpena. Udalbatzan aurkeztu behar gabe egin behar izan zen.

Alkate jaunak zera erantzun du: Hori ez da kasua. Plaka batzuk dira; iaz erosi dira, baina fakturak aurten jaso ditugu; hortaz, betebeharren aitortpenean jaso behar dira. Kontua ez da aurten lehendik zegoen partida bat izapidetu ez dela. Urtearen hasieran egoten diren faktura horietako bat da, urte batean lan bat eginda edo ondasun bat erositara, eta dagokion faktura hurrengo urtean heltzen denean.

Abstentzioak: Guillermo Vío, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekotxea, Juan M^a Sanchez eta Miguel A. Tapia jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak; Jon Andoni Gerediaga jauna, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa; Juan Ignacio del Vigo jauna, Orain udal talde politikokoa eta Manuela Ruiz andrea (atxiki gabeko zinegotzia).

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du:
Ondoko betebeharra aitortzen da:

PARTE RESOLUTIVA

Hacienda y Especial de Cuentas

1.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS. EXPEDIENTE 61/2018:- De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Seguidamente, toma la palabra D. Emilio Ramos del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vasco, para explicar el reconocimiento de las obligaciones.

Acto seguido toma la palabra D. Guillermo Vío, del grupo político municipal Sopelako EHBildu para señalar: Este asunto tenía una partida presupuestaria. Si se hubiese hecho con su autorización y disposición de gastos, no tendría que haber venido a reconocimiento. Se tenía que haber hecho sin tener que pasar por Pleno.

Contesta el Sr. Alcalde indicando: No es el caso. El caso es que son unas placas, compradas el año pasado y cuyas facturas han llegado este año, por lo tanto, tiene que ir a reconocimiento de obligaciones. No es que este año, existiendo una partida no se haya hecho la tramitación. Es una de esas facturas que habitualmente suele haber a principios de año, correspondientes a trabajos o bienes comprados el año anterior y cuya factura llega dentro del año siguiente.

Con la abstención de Con la abstención de D. Guillermo Vío, D^a Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, D^a Ione Aurrekotxea, D. Juan M^a Sánchez y D. Miguel A. Tapia, del grupo político municipal Sopelako EHBildu; de D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela; de D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain y de D^a Manuela Ruiz (concejala no adscrita).

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer la siguiente obligación:

PARTIDA/PARTIDA	HORNITZAILE / PROVEEDOR	KONTZEPTUA / CONCEPTO	KOPURUA / IMPORTE
05 132 22699	SORMEN KOMUNIKAZIOA K, S.L.	Placas de video vigilancia Policía Municipal / Udaltzaingoarentzat bideo- zaintza plakak	774,00 -€
		GUZTIRA	774,00 €

2.- 2017 EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA, HALA BALEGOKIO. 1034/2018 ESPEDIENTEA.:- Gaia mahai gainean uzten da.

2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO 2017. EXPTE. 1034/2018:- Se deja el tema encima de la mesa.

Udal Administrazioa eta Langileria

Administración Municipal y Personal

3.- 2017KO ABENDUAREN 31KO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOAREN ZUZENKETA ONARTZEA, HALA BALEGOKIO: Jarraian, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikokoa den Felix Gabarain jaunak hartu du hitza, gai hori Udal Administrazioa eta Langileriaren Informazio Batzordean jorratu zela esanez. Bertan arazoren bat zegoenez, osoko bilkurara ekarri da, berak onar dezan. Kapituluak banan-banak irakurri ditu.

3.- APROBACION DE LA RECTIFICACIÓN DEL INVENTARIO DE BIENES Y DERECHOS DE LA CORPORACIÓN, REFERIDO A 31 DE DICIEMBRE DE 2017:- A continuación toma la palabra D. Felix Gabarain, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos indicando que este tema se trató en la Comisión Informativa de Administración Municipal y Personal con algún percance, y se trae a pleno para su aprobación. Hace una lectura por capítulos.

Udal honen ondasun eta eskubideen inbentarioa zuzentzeko izapidetu den espedientearen berri eman da; inbentarioa 2017ko abenduaren 31koa da.

Dada cuenta del expediente tramitado para la rectificación del inventario de los Bienes y Derechos que pertenecen a este Ayuntamiento referido a 31 de diciembre de 2017

Udalaren 2017ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen inbentarioan zenbait alta, baja eta aldaketa egin dira, betiere, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 18. artikulua araber formalizatuta.

Habida cuenta que ha sido formulada la inclusión, baja y variación de los bienes y derechos de la Corporación correspondientes a 31 de diciembre de 2017, y formalizada conforme a los epígrafes del art. 18 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por R.D.1372/1986, de 13 de junio.

Aztertu dira apirilaren 18ko 781/1986 ELDaren 86. artikulua eta ekainaren 13ko 1372/1986 EDk onetsitako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 32., 33. eta 34. artikulua.

Vistos los arts 86 del R.D.L. 781/1986 de 18 de abril y 32, 33 y 34 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por R.D.1372/1986, de 13 de junio.

Apirilaren 17an izandako Udal Administrazioaren Informazio Batzordearen espedientearen eta irizpenaren berri eman da.

Dada cuenta del expediente y de dictamen de la Comisión Informativa de Administración Municipal celebrada con fecha 17 de abril.

Ondoren, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa den Jon Andoni Gerediaga jaunak hartu du hitza, honako hau adierazteko: Dagokion batzordean dagoeneko adierazi dugun ohar bat egin nahi dugu: ondasun eta eskubideen inbentarioa eguneratzeko edo zuzentzeko dokumentuak merkatu-balio erreala, 2017ko abenduaren 31koa, aipatzen du. Gure galdera zera da: zergatik aipatzen da merkatu-balio erreala, dirudienez, heldu zaigun informazioa kontuan hartuta, ez bada merkatu-balioa baloratzeko ezarritako metodorik erabili? Koefiziente batean oinarritutako beste balio bat dela ulertzen dugu. Gustatuko litzaiuke denbora apur bat gehiago izatea kasu guztietan aplikatu den koefiziente bera izan den ala haztatutako koefizienteak izan diren jakiteko. Uste dugu ondasunetako batzuen balioa handitu egin dela, hala nola ondasun higiezinak, balioa; beste batzuen balioa, berriz, denborarekin ez da handitzen, guztiz kontrakoa baizik (ibilgailuak, altzariak eta abar). Beharbada, transposizio oker bat egin delako jarri da merkatu-balio erreala, eta beste balio mota bat da. Ez dakigu.

Ondoren, Sopolako EHBildu udal talde politikokoa den Guillermo Vío jaunak hartu du hitza, honako hau esateko: Gabarain jaunak ondo esan duenez, arazo bat gertatu zen, baina ez edozein arazo. Arazoa zen ez genuela espedientea aurretik eskuratu, begiratu ahal izateko. Printzipioz, datuak ondo egon daitezkeela uste dugu, baina, logikoa denez, dagokion unean ezin izan genuen hori egiaztatu, hortaz, ezin dugu bermatu, eta itsu-itsuan bozkatu behar badugu, borondate onez abstenituko gara.

Alkate jaunak zera erantzun du: Gerediaga jaunari erantzunez, merkatu-balio erreala kontularitzako terminoa da; jakina, esan duzun bezala, funtsean udalaren balantzeko aktiboarekin bat datorren inbentarioan, logikoa denez, ondasun amortizagarri guztiak amortizatu egiten dira eta hori jasota geratzen da. Ondasun higiezinetan ez da berdin-berdin gertatzen. Izan ere, aipatu duzun zuzenketak egiten direnean, kontularitzaren aldetik oso ondo justifikatu behar da zergatik aldatzen den ondasunen balioa. Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuak normalean ez du hori egiten uzten. Terminologia baino ez da.

Abstentzioak: Guillermo Vío, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekotxea, Juan M^a Sanchez eta

Después toma la palabra D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela, para indicar: Solamente queríamos hacer una observación que ya hicimos en la correspondiente Comisión y es que en esta actualización o rectificación de Bienes y Derechos menciona a 31 de diciembre de 2017 el valor real de mercado. Nosotros nos preguntamos por qué habla de un Valor Real de Mercado cuando, aparentemente, por la información que nos ha llegado, no se ha utilizado ninguno de los métodos de valoración que están establecidos para un valor de mercado. Entendemos que este es otro tipo de valor, basado en algún tipo de coeficiente. Nos hubiera gustado haber tenido un poco más de tiempo para saber si ha sido el mismo coeficiente que se ha aplicado a todos o si han sido coeficientes ponderados, que entendemos que hay bienes que se han podido revalorizar, como los inmuebles, pero, evidentemente, vehículos, mobiliario, etc lo que sucede con el tiempo es que no se revalorizan, todo lo contrario. Quizá ponga Valor Real de Mercado por alguna trasposición incorrecta y éste sea otro tipo de valor. Lo desconocemos.

Acto seguido toma la palabra D. Guillermo Vío, del grupo político municipal Sopolako EHBildu, para señalar: Como bien ha dicho el Sr. Gabarain, hubo un percance, pero no fue cualquier percance. El percance es que no tuvimos acceso al expediente con anterioridad para poderlo mirar. En principio creemos que los datos pueden estar correctos, pero, como es lógico, no pudimos consultarlo en su momento, por lo que no le podemos dar el aval, y si votamos a ciegas, nos abstenemos de buena voluntad.

Contesta el Sr. Alcalde indicando: Contestando al Sr. Gerediaga, el VRM es terminología contable, obviamente, como aludes en Inventario que coincide básicamente con el activo del balance del Ayuntamiento, lógicamente todos los bienes que sufren amortización, se amortiza y eso tiene un reflejo. En los inmuebles eso no funciona exactamente igual. De hecho, la actualización a la que aludes, cuando se hacen actualizaciones de ese tipo, contablemente tiene que estar muy justificado el por qué se modifica el valor de tus bienes. No es algo que el ICAC permita hacer de manera habitual. No es más que simple terminología.

Con la abstención de D. Guillermo Vío, D^a Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, D^a Ione Aurrekotxea,

Miguel A. Tapia jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak; Jon Andoni Gerediaga jauna, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa; Juan Ignacio del Vigo jauna, Orain udal talde politikokoa eta Manuela Ruiz andrea (atxiki gabeko zinegotzia).

D. Juan M^a Sánchez y D. Miguel A. Tapia, del grupo político municipal Sopelako EHBildu; de D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela; de D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain y de D^a Manuela Ruiz (concejala no adscrita).

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du:

El Pleno por mayoría, acuerda:

Onesten da Sopelako Udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioaren urteko zuzenketa, 2017ko abenduaren 31ko datarekin. Guztira, **50.044.662,74** euroko balioa du. Inbentarioaren laburpena jarraian azaldu da.

Aprobar la actualización anual del inventario de bienes y derechos que pertenecen al Ayuntamiento de Sopelana referido a 31 de diciembre de 2017, que refleja un valor total de **50.044.662,74** euros y cuyo extracto es el que se recoge a continuación.

2017ko abenudaren 31n/AI 31 de Diciembre de 2.017

Merkatuko balio erreala/
Valor real de mercado.

A) Erakundea bera/La propia Entidad.

1. epigrafea.- Higiezinak/Epígrafe 1.- Inmuebles.	47,873.836,28 €
2. epigrafea.- Eskubide erreal./Epígrafe 2.- Derechos reales.	183.587,04 €
3. epig.-Ondas. hist./Epíg 3.- Bienes de carácter histórico.	150.381,95 €
4. epig.- Higiezin balioak./Epígrafe 4.- Valores mobiliarios.	1,113,00 €
5. epig.- Ibilgailuak/Epígrafe 5.- Vehículos.	335.521,53 €
6. epig.- Erdi-inguratzailleak/Epígrafe 6.- Semovientes.	0,00 €
7. epig.- Higigarriak/Epígrafe 7.- Mobiliario.	1.358.595,78 €
8. epig.-Ondasun eta eskubide errebertigarriak/Epígrafe 8.- Bienes y derechos revertibles.	141.627,16 €
	50.044.662,74

ERAKUNDEA, GUZTIRA/TOTAL ENTIDAD

ARGIBIDE, SUSTAPEN ETA KONTROL ATALA

PARTE DE INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

4.- PRESAZKO MOZIOAK, HALAKORIK BADA:- Une honetantxe, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek deialdiarekin batera doan gai-zerrendan ez dagoen eta galde-erreguen txandan sartu ezin den gairen bat aztertu nahi duen, premiazkoa delako. Horri erantzunez, EZETZ adierazi dute zinegotziek.

4.- MOCIONES DE URGENCIA, SI LAS HUBIERA:- En este momento, se pregunta por el Sr. Alcalde si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el Orden del Día que acompañaba a la Convocatoria y que no tenga cabida en el punto de Ruegos y Preguntas, a lo que se responde por parte los concejales, que NO

5.- BERRI EMATEA. GAIA: DEIALDI HONETAKO ERANSKINEAN AGERTZEN DIREN ALKATETZA DEKRETUAK:- Hauen berri eman da:

5.- DACIONES DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA RELACIONADOS EN EL ANEXO DE ESTA CONVOCATORIA:- Dada cuenta de los siguientes:

(A).- BERRI EMATEA: 2018KO MARTXOAREN 26KO 0471/2018 ALKATETZA DEKRETUA, ALKATEAREN EGINKIZUNAK ESKUORDETZEARI BURUZKOA.

(B).- BERRI EMATEA: 2018KO APIRILAREN 7KO 516/2018 ALKATETZA DEKRETUA, ALKATEAREN EGINKIZUNAK ESKUORDETZEARI BURUZKOA.

(C).- 2018KO 1. HIRUHILEKO UDAL AURREKONTUAREN BETETZE EGOERAREN BERRI EMATEA. 1099/2018 ESPEDIENTEA.

Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:-
jakinaren gainean geratu da.

6.- ERREGU, GALDERAK ETA MOZIO EZ-ERABAKIGARRIAK:-

Mozio ez-erabakigarriak

(A).- **Mozio ez-erabakigarria, Manuela Ruiz Vivanco atxiki gabeko zinegotziak aurkeztutakoa. Gaia: Hervé Falciani jauna Suitzara ez estraditatzeko.** Ondoren, Manuela Ruiz andreak (atxiki gabeko zinegotziak) hartu du hitza. Honako hau esan du, hitzez hitz:

"ZIOEN AZALPENA

2018ko apirilaren 4an jakin zen Auzitegi Nazionala aztertzen ari dela Hervé Daniel Marcel Falciani franko-italiar herritarraren kontrako estradizio-eskari berri bat, Suitzak igorritako nazioarteko atxiloketa-agindu batetik sortua, antza denez, Falciani zerrenda delakoan agerrarazitako datuen harira, absente egonik ezarri zitzaion bost urteko espetxe-zigorreko kondena batekin lotuta. Auzitegi Nazionalak bidegabetzat jo zuen egitate horiengatik Espainiak hura estraditatzea 2013ko maiatzaren 8an. Egitate horiengatik pertsona horri jadanik kendu izan zaio askatasuna, eta berriro atxilotu zuten hilaren 4an, bai eta biharamunean aske utzi ere, zaintzapean eta dagozkion kautela-neurriak hartuta eta Fiskaltzaren espetxe-zigorren eskariaren kontra, bere estradizioaz ebatzi bitartean.

Falciani nazioartean ezaguna da "Falciani zerrenda" delakoa zabaldu izana egozten zaiolako, hain zuzen ere, HSBC (The Hong Kong and Shanghai Banking Corporation) suitzar bankuko bezero-zerrenda bat, zeinak hainbat herrialdeetako Justiziarri zerga-iheslariak jarraitzeko aukera emateaz gain, beste zenbait delitu-jarduerarekin, esate baterako terrorismoarekin, lotutako banku-

(A).- DACIÓN CUENTA DECRETO DE ALCALDÍA Nº 0471/2018, DE 26 DE MARZO, RELATIVO A DELEGACIÓN DE FUNCIONES DE ALCALDÍA.

(B).- DACIÓN CUENTA DECRETO DE ALCALDÍA Nº 516/2018, DE 7 DE ABRIL, RELATIVO A DELEGACIÓN DE FUNCIONES DE ALCALDÍA.

(C).- DAR CUENTA DEL ESTADO DE EJECUCIÓN DEL 1º TRIMESTRE 2018. **EXPT 1099/2018.**

El Pleno, por unanimidad, acuerda:- Darse por enterado.

6.- RUEGOS, PREGUNTAS Y MOCIONES NO RESOLUTIVAS:-

Mociones no resolutivas

(A).- **Moción no resolutiva presentada por la Concejala No Adscrita D^a Manuela Ruiz Vivanco relativa a la no extradición a Suiza de Hervé Falciani.** A continuación toma la palabra D^a Manuela Ruiz, (concejala no adscrita) para dar lectura a la moción, que es del siguiente tenor literal:

"EXPOSICION DE MOTIVOS

El 4 de Abril de 2018 se conocía que la Audiencia Nacional estudia una nueva petición de extradición contra el ciudadano franco-italiano Hervé Daniel Marcel Falciani originada por una orden de detención internacional emitida por Suiza relacionada, según parece, con una condena en ausencia a cinco años de cárcel en relación con los datos revelados en la llamada Lista Falciani. Por los mismos hechos la Audiencia Nacional declaró la improcedencia de la extradición por parte de España el 8 de mayo de 2013. Hechos por los que esta persona ya ha sufrido privación de libertad, para ser nuevamente detenida el día 4, siendo puesta en libertad al día siguiente, bajo vigilancia y con adopción de las correspondientes medidas cautelares y en contra de la petición de prisión de la Fiscalía, a la espera de que se resuelva sobre su extradición.

Falciani es conocido a nivel internacional al atribuírsele la distribución de la llamada "lista Falciani" un listado de clientes del banco suizo HSBC (the Hong Kong and Shanghai Banking Corporation) que ha permitido a la Justicia de varios países no sólo perseguir a evasores fiscales sino conocer datos bancarios y financieros relacionados con otras actividades delictivas como el terrorismo.

eta finantza-datuak ezagutzeko aukera eman baitu. Suitzar filialak munduko 203 herrialdetan zituen 106.000 bezerok dagozkien ogasun publikoei 100.000 milioi dolarretik gora ezkutatu omen zizkieten. Espainian, HSBCko 700 zerga-iheslari inguruko zerrendan politikari ezagunak aurkitu ditugu, baina baita ere bankari eta enpresariak, besteak beste, Botín edo Masaveu familiak.

Zerga-paradisuen sarea finantzen espazio opaku bat da, fortuna handiei mesede egiten diona, eta orobat, inbertsio-bankuei eta bide horretatik zergak ordaintzea saihesten duten hainbat korporaziori. Aukera ematen dute era orotako errentak ezkutatzeko, delitu-jardueretatik etor daitezkeenak barne. Garapenerako gobernu kanpoko zenbait erakunderen arabera, 2013 eta 2014 bitartean % 44 areagotu da enpresa handien filialen kopurua zerga-paradisuetan. 2014. urtean bakarrik, Espainiatik zerga-paradisuetan izandako inbertsioaren guztizkoa 2.073 milioi eurokoa izan zen, aldiz, IBEX 35eko 35 enpresetatik 17k ez dute sozietateen gaineko zerga ordaintzen Espainian. GESTHAren arabera, Estatu osoko iruzur-poltsa 59.500 milioi eurokoa da urtean, administrazio publiko guztien urteko osasun-gastuaren antzekoa. Espainiak bere inguruko herrialdeek baino baliabide gutxiago bideratzen ditu iruzur fiskalera, ogasun-ikuskatzaile bat 1.948 biztanleko, ia Alemaniako 740en erdia edo Frantziako 942ena, Europako batez bestekoa izanik ikuskatzaile bat 970 biztanleko. GESTHA Ogasuneko teknikarien elkartearen arabera, Espainian iruzur horren %70 gutxi gorabehera enpresa eta fortuna handietan pilatzen da, aldiz, ogasun-ikuskatzaileen %90ek enpresa txiki eta ertainak ikertzen dituzte zerga-iheslari handiak ikertu beharrean.

Hala ere, Suitzako Justiziak Hervé Falciani jazartzen du, informazio-sistematan aditua eta HSBC bankuko langile ohia, banku-opakutasunerako eskubidea defendatuz gure ordenamendu juridikoan onartzen ez den era batean, non ez baita ageri babestutako ondasun juridiko gisa delitugilearen identitatea eta haren eragiketarako babesteko banketxe baten eskubidea. Gure sistema juridiko-penalean, balizko legez kanpoko egitatearen ikuspegi bateratua hartu behar da aintzat, eta non bis in idem printzipioaren eta osagaiak bete beharreko betekizunen konbinazio zehatza eskatzen da. Halaber, kontuan hartu behar dira Auzitegi Nazionalak krimen-egozte bikoitzari buruz bere garaian egindako balorazioak. Sopelako Udalak ezin du baloratu gabe utzi Espainiako kreditu-entitateen kapitalen zuriketa prebenitzeko zenbait neurri buruzko abenduaren 28ko 19/1993 Legearen arau-hauste larriengatik ezarritako kargu-hartze publikoetan emandako laguntza, finantza-erakundeko informatika arloan aditua den langilea

La filial suiza contaba con 106.000 clientes de 203 países del mundo que habrían ocultado a las haciendas públicas respectivas más de 100.000 millones de dólares. En España, en la lista de alrededor de 700 evasores fiscales en el HSBC hemos encontrado a conocidos políticos, pero también a banqueros y empresarios, entre los que se encontraba la familia Botín o Masaveu.

La red de paraísos fiscales es un espacio opaco de las finanzas, que beneficia a las grandes fortunas, la banca de inversión y un buen número de corporaciones que eluden el pago de los impuestos por esta vía. Permiten que se oculte todo tipo de rentas, incluidas las que pueden provenir de actividades delictivas. ONGDs señalan que entre 2013 y 2014 se habría incrementado en un 44% el número de filiales de las grandes empresas en paraísos fiscales. Solo en 2014, el total de la inversión en paraísos fiscales desde España alcanzó los 2073 millones de euros, mientras que 17 de las 35 empresas del IBEX35 no estarían pagando por el impuesto de sociedades en España. Según GESTHA, la bolsa de fraude en el conjunto del Estado asciende a 59.500 millones de euros anuales, cifra similar al gasto sanitario anual de todas las administraciones públicas. España dedica menos recursos que los países de su entorno a fraude fiscal, un inspector de hacienda por cada 1948 habitantes, casi la mitad de los 740 de Alemania o los 942 de Francia, 1 por cada 970 habitantes de la media europea. Y según la asociación de técnicos de Hacienda GESTHA, en España aproximadamente el 70% de este fraude se concentra en grandes empresas y fortunas, mientras que el 90% de los inspectores de hacienda va a investigar a pymes y autónomos en vez de a los grandes evasores.

Sin embargo, la Justicia suiza persigue a Hervé Falciani, experto en sistemas de información y ex empleado del banco HSBC, defendiendo el derecho a la opacidad bancaria de un modo que no se admite en nuestro ordenamiento jurídico, donde no figura como bien jurídico protegido el derecho de una entidad bancaria a preservar la identidad de los delincuentes y sus operaciones. En nuestro sistema jurídico-penal debe atenderse a una visión conjunta del posible ilícito, exigiéndose una combinación exacta de los requisitos de los elementos principio "non bis in ídem" y a las valoraciones que en su día ya realizó la Audiencia Nacional sobre la ausencia de la doble incriminación. El Ayuntamiento de Sopela no puede dejar de valorar la colaboración de amonestaciones públicas por infracciones graves de la Ley 19/1993, de 28 de diciembre, de medidas de prevención del blanqueo de capitales de Entidades de Crédito español relación laboral con el banco como trabajador cualificado en el área informática de la entidad financiera.

izanda, bankuarekiko lan-harremana kontuan hartuta.

Gure aldetik, gaitzetsi egiten dugu Hervé Daniel Marcel Falcianiren balizko estradizioa, zeren eta, legea betetzen kolaboratzeaz gain, ustelkeriaren salaketetan lekukoei babesa emateko formula juridikoak garatzen eta idazten lagundu baitu.

Espainiako Gobernuak babesik handiena eskaini behar dio Falcianiri. Delitua direlako edo izan daitezkeelako ustean agintari ei gertakari edo datuen berri ematen dizkietenen defentsak lehentasuna izan behar du Ongizate Estatu Sozial eta Demokratiko batean. Eta horrek derrigorrez ekarri behar du zerga-iruzurrak eta ustelkeria-delituak salatzen dituzten pertsonak babestea, baita delitu horiek jakinarazteko mekanismo seguru eta konfidentzialak bermatzea ere.

Oraingo araudiak, penala zein gardentasunaren arlokoak eta horiekin lotutako beste batzuetakoak, herritarren kolaboraziorako betebeharrak ezartzen ditu progresiboki, zeina, gauzatuz gero, ezin baita erreprimitu.

Hori guztia dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu:

Udalbatza honek Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

1.- Adieraz dezan kezkatuta dagoela Hervé Falciani, herritarren egoera dela-eta; izan ere, Espainiako agintariei laguntza eman die iruzur eta ihes fiskalaren kontrako borrokan, arazo larria baita egun. Era berean, UDAL honek aditzera ematen du Falciani jaunaren estradizioaren aurka dagoela, eta eskatzen dio Espainiako Gobernuari, beharrezkoa bada, uka dezan Hervé Daniel Marcel Falciani Suitzara estraditatzeari, Espainiako Zerga Administrazioarekin izandako lankidetzara laudagarria aintzat harturik.

2.- Zenbait neurri bultzatzen dituzten iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko eta iruzurra eta ustelkeria salatzen dituztenen babesa areagotzeko. Besteak beste, honako neurri hauek ezarri behar dira:

a. Zerga Agentziara eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtzara Orokorrera bideratzen diren baliabideak areagotzea, epe labur eta ertainera, enpresa handien eta fortunez iruzurrari, ihes eta saiheste fiskalei eta kapitalak zuritzeari aurre egiteko.

b. Europar Batasunean elkarlana bultzatzea, alde

Manifestamos nuestro rechazo a la posible extradición de Hervé Daniel Marcel Falciani, quien no solo ha colaborado con el cumplimiento de la ley sino incluso ha brindado su apoyo en el desarrollo y redacción de fórmulas jurídicas para la protección a los testigos en las denuncias por corrupción.

El Gobierno español debe prestar la máxima protección a Falciani, La defensa de quienes ponen en conocimiento de las autoridades aquellos hechos o datos de que tienen constancia que son o pueden ser constitutivos de delito, debe ser una prioridad en un Estado Social y Democrático de Derecho. Y ello debe suponer necesariamente la protección de las personas denunciadoras de delitos de fraude fiscal y corrupción, así como el aseguramiento de mecanismos de puesta en conocimiento de tales delitos seguros y confidenciales.

La normativa actual, tanto penal como en materia de transparencia y otras conexas, establece progresivamente obligaciones de colaboración ciudadana que no puede ser reprimida cuando se lleva a cabo.

Por todo ello, presentamos la siguiente Moción:

El Pleno de este Ayuntamiento, insta, a su vez, al Gobierno de España para:

1.- Manifestar su preocupación por la situación del ciudadano Hervé Falciani, colaborador con las autoridades españolas en la lucha contra el fraude y la evasión fiscal, grave problema al que actualmente nos enfrentamos, y expresando una postura contraria a su extradición por parte de este AYUNTAMIENTO solicitando que, llegado el caso, deniegue la extradición a Suiza de Hervé Daniel Marcel Falciani, en especial atención a su loable colaboración con la administración tributaria española.

2.- Impulsar una serie de medidas para luchar contra el fraude fiscal y para incrementar la protección a los denunciadores de fraude y corrupción, entre las que tienen que figurar las siguientes:

a. Aumento de los recursos destinados a la Agencia Tributaria y a la Intervención General de la Administración del Estado, a corto y medio plazo, para combatir el fraude, evasión y elusión fiscales y el blanqueo de las capitales de las grandes empresas y fortunas.

b. Impulso de la coordinación en el seno de la Unión

batetik, zergak bateratzea lortzeko, eta bestetik, banku-sekretua, amnistia fiskala edo "itxurazko sozietateak" kentzeko eta, hala badagokio, zigor-neurriak betearaztea errazteko.

c. Zerga-iruzurraren eta ustelkeriaren delituak salatzen dituzten pertsona guztiak benetan babesteko neurriak arautzea, eta salaketa anonimoak eta/edo isilpekoak aurkezteko bideak ezartzea, edozein errepresalia saiheste aldera."

Ondoren, Orain udal talde politikoko kidea den Juan Ignacio del Vigo jaunak hartu du hitza, hauxe esateko: Ruiz andreak aurkeztutako mozioa errespetu osoz hartuta, hainbatetan eskatu da udalerrriaren arloan edo giza-eskubideen eta askatasunaren defentsarekin zerikusirik ez duten mozioak ez ekartzeko, hau ez baita Europako Parlamentua, ezta Diputatuen Kongresua ere. Hau eztabaidaren erakusleihu bihurtzea ere... Izugarria deritzogu Falciani jaunak egin duenari, justiziari lagundu dio eta argitara eman du kutxa publikoei egiten zaien iruzurra, baina justiziaren eskuetan dagoenez, ezin da ezer egin. Ez dugu eztabaidan parte hartuko eta abstenitu egingo gara.

Jarraian, Euskal Sozialistak udal talde politikoko María Teresa Fernández andreak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Del Vigo jaunak azaldutako argudio batzuekin bat nator, neurri batean; hain zuzen ere, dagoeneko publikoki adierazi dudala kontu batzuk ez direla osoko bilkuran jorratu behar, udalerriz gaindikoak direlako. Hala ere, kontu batzuek, kasu horretan bezala, sentsibilitate berezia eskatzen digute. Ildo horretan, Suitzan bermatzen den banku-opakutasunerako eskubidea ezin da nagusitu kasu horretan. Falcianiren zerrenda argitaratzearen ondorioz, hainbat delitu oso larri argitara eman dira, ez bakarrik kapitalak zuritzearekin, baizik eta droga-trafikoarekin, terrorismoarekin eta emakume salerosketarekin zerikusia dutenak. Kontuan izan behar da herritar horrek Espainiako estatuarekin lankidetzan jardun duela eta delitu horiek argitara ematen lagundu diola, ebatsitako kapitaletako batzuk berreskuratzea ahalbidetuz. Horiek horrela, nire iritziz, merezi du laguntza. Gainera, PSE-EEK beste udal batzuetan eman duen botoarekin bat eta mozioaren edukiarekin ados gaudela kontuan hartuta, horren alde bozkatuko dugu.

Ondoren, Denok Batera Sopela udal talde politikokoa den Jon Andoni Gerediaga jaunak hartu du hitza, honako hau adierazteko: Denok

Europea para lograr la armonización fiscal y eliminar el secreto bancario, la amnistía fiscal o las "sociedades pantalla", facilitando la ejecución de medidas sancionadoras en su caso.

c. Regular la protección efectiva de todas las personas denunciando delitos de fraude fiscal y corrupción, incluyendo canales de denuncia confidencial y/o anónima, que eviten la existencia de cualquier tipo de represalia."

A continuación, toma la palabra D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain, para señalar: Desde el máximo respeto a la moción presentada por la Sra. Manuela, se ha comentado en varias ocasiones que las mociones que no tuvieran que ver con cuestiones que afecten al ámbito municipal o la defensa de los derechos humanos y las libertades no se trajese, toda vez que esto no es el Parlamento Europeo ni el Congreso de los Diputados. Convertir esto en un escaparate de debate Lo que ha hecho el Sr. Falciani nos parece fantástico, ha colaborado con la justicia y ha destapado un fraude a las arcas públicas, pero está en manos de la justicia, con lo que no hay nada que hacer. No vamos a participar del debate y nos vamos a abstener.

Acto seguido toma la palabra D^a M^a Teresa Fernández, del grupo político municipal Socialistas Vascos de Sopela, para señalar: En parte comparto algunos argumentos del Sr. Del Vigo, en el sentido de que ya he manifestado públicamente que algunas cuestiones no deberían tratarse en pleno por ser totalmente extramunicipales, pero hay cuestiones, como en esta ocasión, que hay que ser especialmente sensible. En este sentido, el derecho a la opacidad bancaria que opera en Suiza no debe prevalecer aquí. La lista Falciani ha promovido que se destapen muchos delitos de naturaleza muy grave, que tienen que ver no únicamente con blanqueo de capitales, sino también con narcotráfico, terrorismo e incluso con trata de blancas. Hay que tener en cuenta que este ciudadano ha cooperado con el estado español en destapar estos delitos y en promover que se puedan recuperar algunos capitales que se han hurtado. En este sentido creo que merece la pena el apoyo y en coherencia con lo que en otros ayuntamientos el PSE ha votado y estando de acuerdo con el contenido de la moción, votará a favor de la misma.

Posteriormente toma la palabra D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok

Batera Sopela taldeak mozioaren alde bozkatuko du, honako arrazoi hauek direla medio: hasiera batean ados gaude ez dela tokiko arloko edo eskumen-eremuko kontua, baina horrelako kasuetan toki-administrazioek ere jarrera hartu edo iritzia publikoki azaldu behar dutela uste dugu. Gure ustez, era askoz ere hurbilagoan eta tokikoagoan, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan –seguruenik–, eta agian toki-administrazio gertuetan ere, oso beharrezkoa da mozioak aipatzen duen azken apartatua abian jartzea: "Zerga-iruzurraren eta ustelkeriaren delituak salatzen dituzten pertsona guztiak benetan babesteko neurriak arautzea..." Ezinbestekoa da, betetzeko zailak diren adierazpenak egiteaz gain, zerga-iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokan eraginkorrak izan nahi badugu. Hori dela eta, eta lehenago esandakoa azpimarratuz, mozioaren alde bozkatuko dugu. Uste dugu, gainera, beste toki-administrazio batzuek, baita gainerako esparruetako administrazioek ere, antzeko adierazpen publikoak babestu behar dutela; zenbat eta gehiago, hobeto.

Ondoren, Sopelako EHBildu udal talde politikokoa den Guillermo Vío jaunak hartu du hitza, honako hau esateko: Labur hitz egingo dut. Jendea galderak egiteko zain dago eta gai horri buruz 40 minutu hitz egiten ematea ere... Mozioari dagokionez, ez dago kasualtaterik. Gaia 4 urtez geldirik egon da, eta orain atera da berriro, Espainiak Suitzan dauden politikari kataluniarrak estraditatzeko agindua bidali duenean. Hain zuzen ere, Miguel Urbanek, Podemos-ek Europako Parlamentuan duen bozeramaileak, galdetu du ea Falcianiren atxiloteta Suitzari egiten zaion mesedea den, horren truke Anna Gabriel eta Marta Rovira estraditatzeko. Gai horretaz ere hitz egin nahi genuke. Azkenik, batzuetan esaten digute batzuek banderak ditugula eta beste batzuek ez. Euskal Herria da gure herria, eta mozio horretan, sentitzen dut, baina abertzaleak sentitzen gara, eta Euskal Herria ez da existitzen. Espainiari buruzko aipamenak egiten ditugu, eta oso ondo dago, baina mozio horretan guztiz baztertuta eta minduta sentitzen gara. Ondo edo gaizki irudituko zaigun, baina, errespetu osoz, mozio hori Espainiako estatuko edozein herritan aurkez daiteke eta txalo egingo diogu, baina guk geure zerga-makineria daukagu, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Nafarroako Foru Erkidegoa. Gutxienez, muga horiek errespetatu behar dira. Espainiako zerga-agentziari baliabideak eskatuz gero, etxekoentzat ere eskatuko genituzke.

Batera Sopela, para indicar: Denok Batera Sopela va a apoyar esta moción porque, aunque estamos de acuerdo en que inicialmente no es un asunto de ámbito o competencias locales, sin embargo, entendemos que las Administraciones Locales también tienen que tener un posicionamiento o pronunciamiento públicos en relación a casos como éste, y sobre todo, de una manera mucho más cercana y local, en nuestra CAV seguramente y posiblemente también en Administraciones Locales cercanas consideramos muy necesario que se implante el último apartado que menciona la moción, donde habla de Regular la protección efectiva de todas las personas denunciantes de delitos de fraude fiscal y corrupción, ..." algo necesario, si realmente queremos ser efectivos en la lucha contra el fraude fiscal y la corrupción y no solamente hacer declaraciones que después son difíciles de cumplir. Por lo tanto y recalcando lo anteriormente dicho, vamos a apoyar la moción, y creemos necesario que cuantas más Administraciones Locales o de ámbito superior apoyen pronunciamientos públicos semejantes, mejor nos iría a todos.

Seguidamente toma la palabra D. Guillermo Vío, del grupo político municipal Sopelako EHBildu para señalar: Una intervención breve. Aquí hay gente esperando, público, para hacer sus preguntas y estar hablando 40 minutos sobre esto ... En cuanto a la Moción, no existen las casualidades. Después del parón de 4 años de este tema, sale cuando España realiza una orden de extradición para los políticos catalanes que están en Suiza, concretamente el Portavoz de Podemos en el Parlamento Europeo, Miguel Urban, se pregunta si la detención de Falciani es un favor a Suiza para la extradición de Anna Gabriel y Marta Rovira. Nos habría gustado también que se hablara de este tema. Por último, a veces se nos habla de que algunos tenemos banderas y otros no tenemos banderas. Nuestro pueblo es Euskal Herria y en esta moción, lo siento, nos sentimos abertzales y Euskal Herria no existe. Hacemos todas las referencias a España, que está muy bien, pero nos sentimos totalmente ajenos y dolidos en esta Moción. Nos parecerá bien o mal, pero con todos los respetos, esta moción se puede presentar en cualquier pueblo del estado español y le aplaudimos, pero es que nosotros tenemos nuestro engranaje tributario, la Diputación de Bizkaia, la Diputación de Gipuzkoa, la Diputación de Araba y la Comunidad Foral de Navarra, pero por lo menos hay que respetar esos marcos. Cuando pedimos recursos a la agencia tributaria española, también

2016an Bizkaian antzemandako iruzurra 477 milioi euro zen. Hemen ez dugu ezer eskatuko, ez dugu ezer esango? Mozio horiekin, benetan, egon behar dugun herrialdeaz hitz egiten ari dela sentitzen dugu. Abstenitu egingo gara.

Ondoren, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoen udal talde politikoko Leire Basauri andreak hartu du hitza, honako hau esateko: Testua estatu mailako hainbat erakundetan aurkeztzen ari da. Podemos taldeak, aldi berean, Espainiako Parlamentuan galdera bat egin dio gobernuari (ez proposamen bat, galdera bat baizik). Gure ustez, horixe da gaiari heltzeko eztabaidagune aproposa. Ez dakigu, ideia txiki bat badugu ere, zenbaterainoko eragina izan dezaketen Sopelako herritarrek eta hemengo udalak Falcianiren estradizioan. Hori dela eta, gure ustez, gai hori udal honetan eztabaidatu beharrez, Espainiako Parlamentuan egin beharko litzateke; horregatik, abstenitu egingo gara.

Jarraian, Manuela Ruiz andreak (atxiki gabeko zinegotziak) hartu du hitza, zera esateko: Euskadiri ere dagokio. Falciani jaunari esker, jakin dugu 62 Euskadiko enpresarik dutela banku-kontua Suitzan, eta fortunak dira. Hortaz, badugu eskertzekorik. Hori dela eta, udal guztietan aurkeztzen dugu mozioa, garrantzitsua dela uste dugulako. Izan ere, Foru Ogasunetik informazioa eskuratzea oso zaila izan da, eta Falciani jaunari esker jakin dugu hori guztia.

Abstentzioak: Gontzal Herмосilla, Leire Basauri, Felix Gabarain, Naiara Ibarzabal, Emilio Ramos, Belen Urbieta eta Fco. Javier Intxaurza jaun-andreak, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoen udal talde politikokoak; Guillermo Vío, Iratxe Moreno, Ander Moreno, Ione Aurrekoetxea, Juan M^a Sánchez eta Miguel A. Tapia jaun-andreak, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak; eta Juan Ignacio del Vigo jauna, Orain udal talde politikokoa.

Udalbatzak, gehiengoz, hauxe erabaki du:

Manuela Ruiz atxiki gabeko zinegotziak aurkeztutako mozio ez-erabakigarria –Hervé Falciani jauna Suitzara ez estraditatzeari buruz– onartzea.

pediríamos para las de casa. La bolsa de fraude en Bizkaia del 2016 detectada ha sido de 477 millones. ¿En casa no vamos a pedir nada, no vamos a decir nada? Realmente con estas mociones nos sentimos que se está hablando del país en el que tenemos que estar. Nos vamos a abstener.

Posteriormente toma la palabra D^a Leire Basauri, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoen, para indicar: Este mismo texto se está presentando en diferentes instituciones a nivel estatal. El grupo Podemos, a su vez, ha planteado en el Parlamento Español una pregunta al gobierno (no una propuesta, sino una pregunta). Nosotros creemos que ese es el foro adecuado donde debe abordarse esta cuestión. Desconocemos, aunque nos hacemos una ligera idea, de cuál puede ser la influencia que los ciudadanos de Sopela y su ayuntamiento pueden tener en la cuestión de la extradición de Falciani. Por ello, creemos que el foro para este debate no es este, sino el parlamento español; y por ello, nos vamos a abstener.

Acto seguido toma la palabra D^a Manuela Ruiz (concejala no adscrita) para señalar: Sí que también afecta a Euskadi. Por el Sr. Falciani nos hemos enterado que el número de empresarios vascos que tienen cuenta en Suiza son 62 personas, fortunas. Luego, algo le tendremos que agradecer a este señor. Por eso es por lo que trasladamos a todos los Ayuntamientos esta moción, porque entendemos que tiene su importancia. De hecho, acceder a la Hacienda Foral para poder tener información ha sido muy difícil, y gracias a este señor nos hemos enterado de todo esto.

Con la abstención de D. Gontzal Herмосilla Ramos, D^a Leire Basauri, D. Felix Gabarain, D^a Naiara Ibarzabal, D. Emilio Ramos, D^a Belen Urbieta y D. Fco. Javier Intxaurza del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoen, de D. Guillermo Vío, D^a Iratxe Moreno, D. Ander Moreno, D^a Ione Aurrekoetxea, D. Juan M^a Sánchez y D. Miguel A. Tapia, del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de D. Juan Ignacio Del Vigo, del grupo político municipal Orain.

El Pleno por mayoría, acuerda:

Aprobar la moción no resolutive presentada por D^a Manuela Ruiz (concejala no adscrita) relativa a la no extradición a Suiza de Hervé Falciani.

Erregu-galderak

Ondoren, Guillermo Vío jaunak hartu du hitza, honako hau esateko: Guk ez dugu erregurik aurkeztuko, erregu bihurtutako bi mozio baizik, erregu gisa aurkeztera behartuta gaudelako. Mozioak bozkatu egiten dira, baina erreguak ez. Zentzu horretan nahiko deseroso sentitzen gara.

(A).- Sopelako EHBildu udal talde politikoak aurkeztutako erregua, informazio-batzordeen izaera aldatzeko. Lehenengo erreguak, hitzez hitz, honela dio:

“Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, bere 30. artikulua 3. apartatuan zera dio: {Organo osagarrien bilkurak –batez ere osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertzeko, haien gainean irizpena egiteko edo haietaz aholkua emateko, eta orobat gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egiteko diren organoenak– **publikoak izan ahalko dira, hala erabakitzen badu erakundearen osoko bilkurak bere legezko kideen gehiengo osoaren erabakiz**, edo hala aurreikusten bada udalaren erregelamendu organikoan.}

Aipatzen diren {Organo osagarrien bilkurak –batez ere osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertzeko, haien gainean irizpena egiteko edo haietaz aholkua emateko, eta orobat gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egiteko diren organoenak}, gure iritziz, zinegotziek hileroko egiten ditugun 9 informazio-batzorde iraunkorrak dira, **Sopelako Udal Araudi Organikoaren 15. artikulua hauxe baitio:** [Informazio Batzordeak eratuko dira; organo horiek izaera osagarria izango dute... [...], eta honako eginkizun hauek izango dituzte: Udaltzataren eskumeneko gaiak aztertea eta haien buruzko irizpena ematea.] (jatorrizko testua erdaraz bakarrik).

Aipaturiko Legearen 30. artikulua 3. atala ontzat emanaz, eta batez ere, gardentasuna eta Sopelako gai publikoetan herritarren partaidetza sustatzeko, mozio hau aurkezten da Udaltzat Osoko Bilkura honetan, Informazio Batzordeen izaera aldatzeko, edozein herritarrek aukera izan dezan batzordeetara etortzeko eta parte hartzeko.

Hori dela eta, Sopelako Udaltzat Osoko Bilkurak honako hau erabaki du:

1.- Udaltzat Osoko Bilkurak akordio hau hartzen duen unetik, Batzorde Informatiboak publikoak eta

Ruegos y Preguntas

Acto seguido toma la palabra D. Guillermo Vío, para indicar: Nosotros no presentamos ruegos, presentamos 2 mociones, que han hecho que sean ruegos. Las mociones se votan, se deciden, pero los ruegos no. En ese aspecto nos sentimos bastante incómodos.

(A).- Ruego presentado por el grupo político municipal Sopelako EHBildu relativo a modificar la naturaleza de las Comisiones Informativas. El primer ruego es del siguiente tenor literal:

“ El apartado 3 del artículo 30 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi dice: {Las sesiones de los órganos complementarios, y especialmente de aquellos que tengan por objeto el estudio, informe o consulta de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del pleno, así como el seguimiento de la gestión de los órganos de gobierno, **podrán ser públicas, si así lo acuerda el pleno de la entidad mediante acuerdo adoptado por mayoría absoluta** del número legal de miembros o si así se previera en el reglamento orgánico municipal.}

Por {órganos complementarios y especialmente de aquellos que tengan por objeto el estudio, informe o consulta de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del pleno, así como el seguimiento de la gestión de los órganos de gobierno}, entendemos las 9 Comisiones Informativas Permanentes que celebramos mensualmente los y las concejalas ya que el **Reglamento Orgánico Municipal de Sopela (ROM) en su artículo 15, dice:** [Se constituirán Comisiones Informativas que tendrán la naturaleza de órganos complementarios ... Con las funciones...Estudio y emisión de dictamen sobre los asuntos de la competencia del Pleno Municipal.]

En base al apartado 3 del artículo 30 de la Ley 2/2016 anteriormente citada, y, sobre todo, en aras a impulsar activamente la transparencia y participación vecinal en los asuntos públicos de Sopela, se presenta a Pleno esta moción para modificar la naturaleza de las Comisiones informativas posibilitando que cualquier persona pueda asistir libremente a las mismas y poder participar en ellas.

Por tanto, el Pleno del Ayuntamiento de Sopela acuerda:

1.- Que, a partir de la fecha del presente

irekiak izango dira interesatuta dauden herritar guztientzat. Batzordeetan parte hartu ahal izango da gaur egun osoko bilkuretan egiten den bezalaxe: bukaeran herritarrek haien ekarpena egin ahal izango dute.

2.- Batzorde hauen deialdiak udalaren web orrian publikatuko dira.

3.- Informazio Batzordeak audio sistema baten bidez grabatuko dira, egin beharreko idatzizko aktak osatzeko.””

Lehenengo mozio horrek Sopelako batzordeak, alegia, informazio-batzordeak, sopeloztar guztientzat irekita egon daitezzen eskatzen du. Bozka dezakegu, izan ere, oraintxe bertan Suitzari buruz bozkatu dugu, eta ezin dugu bozkatu hemen zaudeten guztiok arazoak herri honetako informazio-batzordeetan aurkezteko aukera izan dezaten. Arraroa da. Eskatzen duguna ez da burutazio bat. Izan ere, 2017an Eusko Legebiltzarrean onetsi zen legean jasota dago. Legeak hauxe dio hitzez hitz: {Organo osagarrien bilkurak –batez ere osoko bilkuren erabakipean jarriko diren gaiak aztertze, haien gainean irizpena egiteko edo haietaz aholkua emateko, eta orobat gobernu-organoen kudeaketaren jarraipena egiteko diren organoenak–**publikoak izan ahal dira, hala erabakitzen badu erakundearen osoko bilkurak bere legezko kideen gehiengo osoaren erabakiz**, edo hala aurreikusten bada udalaren erregelamendu organikoan.}. Horixe ekarri dugu. Legean ematen digun aukera bat, osoko bilkura honek baietz esateko. Lege hori ez zeukan Espainiako estatuko autonomia-erkidego bakarrak, 35 urte geroago, EAJ-PNV eta EHBilduren arteko akordio garrantzitsua lortu du, eta guk udal honetara ekarri dugu, hemen onar dadin, eta herritar guztiek batzordeetara etortzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten. Baina ezin da bozkatu. Udal honetan egiten den informazio-batzordera Urkon obrak egingo dituen arkitektoa gonbida daiteke, baina Urkon saskibaloian jokatzen duten gazteak ezin dira etorri. Ospitalerako sarbideak egiten ari diren zirkulazio-teknikariak etor daitezke, baina auzotarrak ez. Mankomunitateko teknikariak etor daitezke, gizarte larrialdietarako laguntzei buruz hitz egiteko, baina laguntza murriztua jaso duten pertsonak ezin dira etorri, beren egoera azaltzeko. Behargintzako edo Lanbideko teknikariak etor daitezke, baina langabeak ez. Horixe da mozioan eskatzen duguna, Eusko Legebiltzarrak onetsitako legearen babesa dugu,

acuerdo plenario, las Comisiones Informativas sean públicas y de acceso libre para todas las personas interesadas, pudiendo participar en las mismas como se realiza en la actualidad en los plenos: a su finalización los y las vecinas podrán hacer sus aportaciones.

2.- Que las convocatorias de dichas Comisiones serán publicadas en la página web del Ayuntamiento.

3.- Que las Comisiones Informativas se grabarán mediante sistema de audio con el fin de contar con un elemento adicional a las actas escritas que se han de redactar.”

Esta primera moción dice que las Comisiones de Sopela, las Comisiones Informativas sean abiertas a todos los vecinos de Sopela que puedan participar. Podemos votar, ahora mismo hemos votado sobre Suiza, y no podemos votar para que todos los que estáis ahí puedan traer un problema a la Comisión Informativa de este pueblo. Es curioso. Esto que pedimos no es una ocurrencia. Está recogido en la Ley que se aprobó en el 2017 en el Parlamento Vasco y que dice textualmente: {Las sesiones de los órganos complementarios, y especialmente de aquellos que tengan por objeto el estudio, informe o consulta de los asuntos que han de ser sometidos a la decisión del pleno, así como el seguimiento de la gestión de los órganos de gobierno, **podrán ser públicas, si así lo acuerda el pleno de la entidad mediante acuerdo adoptado por mayoría absoluta** del número legal de miembros o si así se previera en el reglamento orgánico municipal.}. Eso es lo que hemos traído. Una oportunidad que nos da la ley para que este Pleno diga que sí. La única Comunidad Autónoma del estado español que no tenía esta Ley, se hace tras 35 años con un acuerdo importante entre PNV y EHBILDU y resulta que lo traemos a este Ayuntamiento para que sea aprobado y que toda la gente pueda venir a las Comisiones y participar en ellas y resulta que no se puede votar. A una Comisión Informativa este Ayuntamiento puede invitar al arquitecto que va a hacer las obras de Urko, pero no pueden venir los chavales que juegan a Baloncesto en Urko. Puede invitar a los técnicos de tráfico que están haciendo los accesos al Hospital, pero no pueden venir los vecinos. Pueden venir las técnicas de la Mancomunidad a hablar sobre las AES, pero no pueden venir a explicar su situación las personas que han visto reducida su AES. Pueden venir los técnicos de Behargintza o Lanbide pero no pueden venir los parados. Eso es lo que pedíamos en la moción, y nos basamos en una Ley que nos ampara, Ley

eta horretan oinarritzen gara. Hori dela eta, Sopelako biztanleei batzordeetan parte hartzeko aukera ematea eskatzen dugu, legearen babesarekin.

Juan Ignacio del Vigo jaunak hartu du hitza, hauxe esateko: Ez dakit gogoratuko duzuen, baina nire taldeak Vío jaunak azaldutako ildo bereko mozio bat aurkeztu zuen, hau da, batzordeak irekiak izateko, baita esanbidezko gonbidapenak bidaltzeko ere, biztanleen intereseko gaiak jorratzen direnean. Bitxia zen, bere garaian aurkeztutako mozioa EAJ-PNVk, Barakaldoko Udalean oposizioan zegoela, aurkeztu zuen mozio bera zelako. Ez zen aurrera atera.

M^a Teresa Fernández andreak hauxe esan du: Nire ustez, gai hori patxadaz aztertu behar da. Eztabaida hori pasa den legealdian sortu zen dagoeneko, eta zera ondorioztatu zen: gizarte talde jakin bat edo pertsona batzuk gai batean interesatuta badaude eta gai hori herritar horien interes legitimoekin lotuta badago, haien iritzia edo balorazioak ezagututa, irizpena emateko behar ditugun irizpide-elementuak izango ditugu. Bestalde, parte hartzeko aukera edonori eman bada, eta nolabait "doako barra" uzten bada, eztabaida moztu egin daiteke, pentsatzen duzuna ez baituzu askatasunez adieraziko, bertaratutakoek zer pentsatuko duten beldur, eta abar. Horrek oztopa lezake eztabaida. Patxadaz aztertu eta ados jarri beharko litzateke. Denbora gehiagorekin planteatu daiteke eta epe bat jarri. Nire ustez, gutxi pentsatutakoa da hemen eta orain proposatzea.

Jarraian, Jon Andoni Gerediaga jaunak hartu du hitza, hauxe adierazteko: Guztiz bat gatoz kontua askoz ere sakonago eztabaidatu, alde guztiei entzun eta adostasunak lortzen saiatu beharko litzatekeela. Bat egiten dugu eztabaida lehenbailehen hasteko proposamenarekin, eta horixe eskatzen dugu, bestela, legealdia amaituko da, eta guk ez dugu ezer egingo. Atsegin dugu hasierako mozioak eta oraingo erreguak Denok Batera Sopela taldeak hilabete guztietan eskatutakoa jaso duela ikustea, adibidez, Ogasun Batzordea, garrantzitsuenetako bat, non ekonomia-kontuak eztabaidatzen diren, udal kudeaketan funtsezkoenak, azken finean, azken egunean egin dadin, hain zuzen ere, Ogasun Batzordean ekonomia mailan bakarrik agertzen diren kontu guztiak gainerako batzordeetan behar bezala galdetu, kontsultatu eta azaldu ahal izateko. Hainbat aldiz eskatu dugu. Orain dela hilabete

aprobada en el Parlamento Vasco. Por lo tanto, rogamos que a los vecinos y vecinas de Sopela se les deje participar en las comisiones porque la Ley nos lo permite.

Toma la palabra D. Juan Ignacio Del Vigo, para indicar: No sé si recordaréis que mi grupo presentó una Moción que iba en la misma línea que comentaba el Sr. Vío, es decir, que fuesen abiertas incluso con invitación expresa a los vecinos cuando se trataban temas de su interés, etc. Fue curioso, porque la moción presentada en su día era la que había presentado el PNV en el Ayuntamiento de Barakaldo, cuando el PNV estuvo en la oposición. Pues no salió adelante.

Indica D^a M^a Teresa Fernández que: Considero que este tema merece sosiego y examinarlo con calma. Este debate ya se produjo en la pasada legislatura y se llegó a la conclusión de que en asuntos que fueran directamente interesados una cierta parte de la sociedad o unas personas concretas y que tengan que ver con sus intereses legítimos, conocer su opinión o sus valoraciones nos da elementos de juicio a la hora de emitir nuestro dictamen. Por otra parte, abrir el abanico y que sea barra libre puede derivar en que se corte el debate, no digas con libertad lo que consideras porque temas el juicio de los que están, etc. El debate se podría ver mermado. Habría que estudiarlo con calma y llegar a acuerdos. Se podría haber planteado con más sosiego y darnos un plazo. Creo que es un poco precipitado plantearlo aquí y ahora.

Acto seguido toma la palabra D. Jon Andoni Gerediaga, para señalar: Coincidimos totalmente con lo comentado de que este asunto debería tener un debate de mucha más profundidad, escuchando todas las partes e intentando llegar a consensos. Lo que nos sumamos y solicitamos es que ese debate se abra cuanto antes, porque si no vamos a llegar a final de legislatura y no habremos hecho nada. Nos ha agradado ver que lo que inicialmente era moción y ahora ruego, se ha recogido una demanda que Denok Batera Sopela ha estado insistentemente solicitando mes tras mes, que es, por ejemplo, que la Comisión de Hacienda, una de las más importantes y donde se deciden los asuntos económicos que, al final, es casi lo fundamental en la gestión municipal, se traslade al último día precisamente para que todos los asuntos que aparecen reflejados solamente a nivel económico en la

asko esan ziguten aztertu egingo zela. Ez dakigu aztertu egin den ala ez, inoiz egingo den. Edonola ere, ez dugu horri buruzko erantzun zehatzik jaso. Dena den, beharrezkotzat jotzen dugu eztabaida irekitzea batzordeen gaia gutxienez aipatzeko. Izan ere, zehazteko bakarrik, behin baino gehiagotan zera gertatu zaigu: hilabete berean jorratutako gai jakin batzuk informazio-batzordean galdetuta, esan digute ezin digutela ezer esan, alkatea arduratzen delako gai horretaz.

Manuela Ruiz andreak (atxiki gabeko zinegotziak) hartu du hitza, zera esateko: Eztabaida ireki behar dela uste dugu, jendea batzordeetara etortzea eta gaiei buruzko zalantzak adieraztea garrantzitsua dela iruditzen zaigulako. Vío jaunak esan duen bezala, kiroldegiko arkitektoa ez ezik, kirolariek ere egon beharko lukete batzordean, instalazioak ezagutzen dituen jendeak, ideiak ekar ditzaketen pertsonak eta abarrek.

Alkate jaunak erantzun du: Del Vigo jaunari erantzunez, mozioa aurkeztu zenuenean, Udal Araudi Organikoa aldatu beharko litzateke hori egiteko. Vío jaunari erantzunez, zuek ekarri duzue gaia, baina gai-zerrenda idazteko eskumena alkatetzari dagokio. Zuk lege bat hartu duzu oinarri, eta neu ere lege batean oinarritzen naiz. Egun dauden batzordeak ez dira gobernu taldearen nahikeria. 2015eko uztailako osoko bilkuran erabaki zen horiek sortzea eta Udalbatza honek onetsi egin zituen. Dirudienez, jendeari ahaztu egiten zaio Udalbatza honetan dauden taldeak izan zirela batzordeen alde edo kontra bozkatu zutenak, edo abstenitu egin zirenak. Gai hori ez dagokio gobernu taldeari bakarrik. Udalak gaur egun duen funtzionamendu-egitura erabaki egin zuen eta egokia dela uste dugu. Herritarrek parte har dezakete, izan ere, osoko bilkuretan hartzen dute parte. Ez gara udal itxia. Biztanleei parte hartzeko aukerarik ematen ez dieten udalak ere badaude. Ez dugu ardura hori herritarren esku utzi behar, hau da, politikariok ere herritarrengana hurbildu, haiekin egon eta informazioa bildu behar dugu. Izan ere, nire ustez, nahikoa bide ditugu horretarako, udalerrri honetako elkarteetan, talde desberdinen iritzia jakiteko, eta horrek ez du eragozten batzordeek gaur egun duten kopurua eta formatua izaten

Comisión de Hacienda, puedan ser oportunamente preguntados, consultados y explicados en las demás comisiones. Eso lo hemos solicitado repetidamente. Se nos dijo hace muchos meses que se estudiaría, no sabemos si se ha estudiado, no se ha estudiado o no se va a estudiar nunca, pero desde luego no hemos tenido una respuesta concreta al respecto. En cualquier caso, consideramos necesario que, al menos, se abriera un debate para tocar el tema de las comisiones, que por cierto, solamente por puntualizar, nos ha sucedido también bastantes veces, que en la Comisión Informativa preguntando por determinados asuntos que igual han sido tratados en ese mismo mes, hemos preguntado y nos han dicho que no pueden decir nada porque ese tema lo lleva el Sr. Alcalde.

Toma la palabra D^a Manuela Ruiz (concejala no adscrita) para señalar: Pensamos que se tiene que producir ese debate porque consideramos importante que la gente se acerque a las comisiones y cuestione los temas. Como decía el Sr. Vío, no únicamente tiene que estar el arquitecto del Polideportivo, sino también los deportistas, la gente que sabe, que pueda aportar ideas etc.

Contesta el Sr. Alcalde para señalar: Respondiendo al Sr. Del Vigo, decir que cuando presentaste la Moción, para poder hacerlo se tenía que modificar el ROM. Contestando al Sr. Vío, decir que vosotros lo habéis traído y la facultad de hacer el orden del día es de Alcaldía. Igual que tú te basas en una Ley, yo también me baso en una Ley. Las Comisiones que existen actualmente no son un capricho del equipo de gobierno. Las que existen actualmente se decidieron en el Pleno de Julio de 2015 y fueron aprobadas por este Pleno. Parece que a la gente se le olvidase que los grupos que están en este Pleno fueron los que votaron a favor, en contra y se abstuvieron de esta organización municipal. No es un tema únicamente del equipo de gobierno. La estructura actual de funcionamiento del Ayuntamiento se decidió y entendemos que es la oportuna. La participación de los ciudadanos se puede dar porque, de hecho, se da en los Plenos. No somos un Ayuntamiento cerrado. No todos los Ayuntamiento da la palabra a los vecinos. No hay que trasladar la responsabilidad a los ciudadanos, es decir, los políticos también tenemos que ir, estar con la gente y recabar esa información, y de hecho, creo que tenemos mecanismos suficientes para poder hacerlo, conocer la opinión que tienen las asociaciones,

jarraitzea, gure iritziz, egokiak baitira gero osoko bilkuran aurkezten diren gaiak lantzeko. Gogoan izan behar dugu batzordeak gero osoko bilkurara joaten diren gaiak lantzeko direla.

Jarraian, Vío jaunak hartu du hitza, honako hau esateko: Fernández andreak erantzuten hasiko naiz: pasa den legealdian, hitz egin zen horretaz, baina ez zegoen aipatu dudana legezko oinarririk; izan ere, legealdia 2015eko udaberrian amaitu zen, eta aipatu legea 2016ko apirilean onartu zen. Irakurri dudana artikulua, beraz, aurreko legealdia amaitu ondorengoa da, gehienez ere. Gauzak horrela, aurreko legealdian ahaleginak egin arren, ez geneukan asmoa gauzatzeko lege-esparrurik. Baieztapen batek harritu nau. Ni lege batean oinarritzen naiz eta zu beste batzuetan, eta onartu behar. Gai-zerrenda egiteko eskumena zuri dagokizu. Eta nik galdera erretoriko bat egingo dut hemen: Zer ematen diogu garrantzi handiagoa, gai-zerrenda bati ala batzordeetan parte hartzeko aukerari? Bi legeen arteko talka da, bitxia da. Garrantzi handiagoa horri ematen diogu. Udal Araudi Organikoa aldatu beharri dagokionez, patxadaz egin beharko litzateke, bai. Besterik gabe, gogorarazi nahi dut Orain udal taldeak planteatu zuen 18. zinegotzi famatuari buruzko eztabaida hori hasi zenean..., bide batez, eta errespetu guztiarekin diot, EHBilduk une hartan esan zuen horren aldeko botoa emango zuela, azkenean bozkatu ez zen arren; dena den, egoera oso bestelakoa zen. ...Une hartan, legea errekurritu zen Konstituzio Auzitegian, hortaz, ez zen horri buruz eztabaidatzeko unerik onena. Orain ez dago Konstituzio Auzitegian legearen aurkako errekurtsorik. Eztabaida hartan, 2016ko aktetan irakur dezakegun bezala, guk dagoeneko eskatu genuen. Eztabaida hori itxita balego bezala ez planteatzeko bakarrik eskatzen dugu, garrantzi handiko eztabaida delako eta denon artean lasai hitz egiten egin behar delako. Udal Araudi Organikoaren aldaketa ez dadin joratu informazio-batzorde batean, batzorde berezi batean baizik. 2016an eskatu zen. Gaia joratu ahal izateko nahikoa denbora eman dela uste dut, hortaz, Udal Araudi Organikoan jasotzeko eskaera dagoeneko egin dago, are gehiago, alkate jaunak ados zegoela eta gaia lantzen hasteko izapideak hasiko zirela esan zuen. Geldirik geratu zen. Legealdia hasi eta handik urtebetera gertatu zen. Orain, urtebete barru legealdi hori amaitu egingo da, eta gaia eztabaidatu gabe dago. Hori dela eta, gaia mahai gainean jartzeko ordua iritsi dela pentsatu dugu.

diferentes colectivos de este Municipio, y eso no obsta para que las Comisiones sigan con el número y formato que son actualmente, que entendemos adecuado para trabajar los temas que posteriormente van a Pleno. No hay que olvidar que las Comisiones son para trabajar los temas que después van a Pleno.

Toma la palabra el Sr. Vío para indicar: Empezando por la Sra. Fernández, la pasada legislatura se habló sobre ésta, pero no había la base legal a la que me he referido porque esa legislatura acabó en la primavera de 2015 y esta Ley se aprobó en Abril de 2016, por lo que el artículo que he leído es como máximo, posterior a la anterior legislatura, con lo cual aunque en la anterior legislatura se harían esfuerzos, no teníamos el marco legal para llevarlo a cabo. Se me ha hecho curiosa una afirmación. Yo me baso en una Ley, tú en otras, y hay que aceptar. La facultad de realizar el orden del día es tuya. Yo aquí me hago una pregunta retórica. ¿Le damos más importancia a un orden del día que a que las comisiones puedan ser participativas?. Es un choque de dos leyes, es curioso. Le damos más importancia a eso. Respecto a que habría que modificar el ROM, que habría que hacerlo con calma, simplemente recordar que cuando se dio ese debate sobre el famoso concejal número 18 que planteó el grupo municipal Orain, que por cierto y dicho con todo el respeto, EHBildu en aquel momento dijo que lo iba a apoyar, aunque al final no se llegó a votar, también el momento era muy distinto. En aquel momento la Ley había sido recurrida al Constitucional, con lo cual igual no era el mejor momento para discutirla. Ahora no está recurrida en el Constitucional. En aquel debate, y podemos leer las actas de 2016, nosotros ya lo pedimos. Lo único que pedimos es que ese debate no se plantee como un debate cerrado, toda vez que es un debate de profundo calado que hay que hacerlo tranquilamente hablando entre todos. Que no se trate la modificación del ROM en una Comisión informativa, sino en una comisión especial. Se pidió en el 2016. Creo que se ha dado tiempo suficiente para que pueda ser tratado, con lo cual ya está pedido que se trate en el ROM y es más, el Sr. Alcalde dijo que estaba de acuerdo y que se iban a iniciar los trámites para empezar a trabajar en este tema. Se quedó parado. Eso fue a un año de legislatura y ahora estamos a un año de finalizar dicha legislatura y este tema no se ha tratado, con lo cual hemos creído que ya era hora de plantearlo.

Alkate jaunak erantzun du: Izan ere, gai-zerrendak egiteko eta desegiteko eskumena duenak normalean egiten du. Oso ondo gogoratzen dut, eta une hartan halako asmorik egonez gero, EHBildu PSErekin ados jarrita, gehiengo izango zenuten, alkate andrearen kalitateko botoarekin. Gai-zerrendak egiteari eta nola egiten diren edo nola ez diren egiten kritikatzeari dagokionez, guk ere, –aurreko legealdiaz ari naiz– osoko bilkuran gehiengo izango zela, gaiaren alde bozkatuko zela eta gobernu taldeak bozketa galduko zuela jakinda, batzuek “ospitaleko errepidea” deitzen dioten horri loturiko kontu batzuk osoko bilkuran aurkeztea eskatu genuen, baina ez zen ontzat hartu. Hortaz, gai-zerrenda egiten duenak une bakoitzean, eta udalerraren interesak kontuan hartuta, egokientzat jotzen duen moduan egiten du. Hori dela eta, ez dut uste kritikagarria eta egozgarria denik.

(B).- Sopelako EHBildu udal talde politikoak aurkeztutako erregua. Gaia: Informazio Batzordeen aldaketa. Bigarren erreguak honela dio, hitzez hitz:

“Sopelako Udal Araudi Organikoaren 15. artikulua 3. atalak zera dio: [Udal Osoko Bilkurari dagokio Informazio Batzordeen kopurua zehaztea eta izendatzea. Ahal den neurrian batzorde horiek bat egingo dute, atalen kopuruari eta izenei dagokionez, udalak duen antolamendurekin. Era beren, Udal Osoko Bilkurak aldatu ahal izango du adosturikoa] (testua itzulpena da, jatorrizkoa erdaraz dago). Egun ditugun informazio-batzordeak 2015eko uztailaren 9ko Osoko Bilkuran onartuak izan ziren, eta bi urte geroago, 2017ko uztailaren 26an, EHBildu, DB-TU, Orain Sopela udal taldeetako ordezkariak eta atxiki gabeko zinegotziak (hau da, Udalbatzako 17 zinegotzietatik 9k) sinatutako erregu bat erregistratu zen udal honetan. Horren bidez, informazio-batzorde iraunkorrak berrikustea, eta eskaera hori 2017ko iraileko Udal Administrazioa eta Langileria Batzordean, edo egokien ikusiko zen batzordean aztertzea eskatu zen. 2018ko martxoan gaude eta erregu hori ez da aztertua izan.

Hori dela eta, EHBilduk honako aldaketa hauek proposatzen ditu oraingo antolamenduan:

9 batzordeetatik 6ra pasatzea, hona hemen:

(1) Kultura, euskara eta hezkuntza

Contesta el Sr. Alcalde que: Efectivamente, quien tiene capacidad para hacer y deshacer órdenes del día normalmente lo hace. De hecho, recuerdo perfectamente y si hubiese habido tal ánimo en aquel momento, si hubieseis pactado EHBildu con PSE hubieseis tenido mayoría, con el voto de calidad de la Alcaldesa. En cuanto a hacer órdenes del día y criticar cómo se hacen o se dejan de hacer, nosotros también hablando de la legislatura pasada y sabiendo, además, que había mayoría en el Pleno, hubiese votado a favor en aquel tema, y que el equipo de gobierno hubiese perdido aquella votación, también pedimos que se llevasen a Pleno algunos aspectos referentes a lo que algunas personas llaman “carretera del hospital”, pero no se tuvo a bien, por lo tanto, quien hace el orden del día lo hace como entiende que es más oportuno para cada momento y para los intereses del municipio. Por lo tanto, no creo que sea nada criticable y achacable.

(B).- Ruego presentado por el grupo político municipal Sopelako EHBildu relativo a modificación de las Comisiones Informativas:- El ruego es del siguiente tenor literal:

“El ROM del ayuntamiento de Sopela dice en su artículo 15, apartado 3: [Corresponderá al Pleno Municipal determinar el número y la denominación de las Comisiones Informativas, que, en lo posible, se corresponderá con el número y denominación de las áreas en que se estructura la organización municipal. Asimismo, corresponderá al Pleno la modificación de lo acordado.] Las actuales Comisiones Informativas fueron aprobadas en pleno de 9 de julio de 2015 y dos años después, el 26 de julio de 2017, se registró un ruego en este Ayuntamiento firmado por los representantes de los grupos municipales de EHBildu, DB-TU, Orain Sopela y la concejala no adscrita (9 sobre 17 Concejales del Pleno) pidiendo la revisión de las Comisiones Informativas permanentes y solicitando que en el mes de Septiembre (del 2017) se estudiase dicho ruego en la actual Comisión de Administración Municipal y Personal, o donde se considere adecuado. Estamos en marzo de 2018 y esa petición no ha sido tratada.

Por tanto, EHBildu plantea al Pleno del Ayuntamiento de Sopela los siguientes cambios a la organización actual

Pasar de 9 a 6 comisiones que serían las siguientes:

- (2) *Gizarte arloa: Gizarte Ekintza, emakumea, berdintasuna, kirola, aisialdia eta gazteria*
- (3) *Ekonomia arloa: Ogasuna eta Kontuen Batzorde Berezia*
- (4) *Udal Administrazioa, langileria eta hiritarren segurtasuna*
- (5) *Turismoa, komunikazioa, informatika, merkataritza, enplegua eta sustapen ekonomikoa*
- (6) *Hirigintza, etxebizitza, lan eta zerbitzuak*

Ogasunaren eta Kontuen Batzorde Berezia hileroko egiten diren batzordeen artean azkena izan dadin.

Gainontzeko ataletan (konposaketa, ordainketa, hileroko egutegia...) ez da aldaketarik proposatzen.

Hona hemen proposamen honen arrazoiak:

- 1.- *Urtero diru kopuru esanguratsu bat aurreztea: 40.000 euro urtean.*
- 2.- *Malgutasun handiagoa gaiak aztertzeke.*
- 3.- *Ez du ia eraginik udalak duen antolaketa egituran.*
- 4.- *Ogasunaren eta Kontuen Batzorde Berezia azkena izateak aurretiko edukien ezagutza bideratzen du, haien balorapen ekonomikoko egokiagoa egin ahal izateko”.*

Guillermo Vío jaunak hartu du hitza, honako hau esateko: Hasteko, EHBilduk mozio bat aurkeztu du, 9 batzorde izan beharrean 6 izan daitezela, eta mozio hori ere erregu bihurtu da. Proposamen horrek, printzipioz, urtean 40.000 euroko aurrezpena ekarriko lieke udal honi eta Sopelako biztanle guztiei, eta zinegotzientzat ez litzateke lan-karga izango, toki batean edo bestean egon behar dugun pertsonen kopurua ez baita aldatuko. Bestalde, Gerediaga jaunak esan duen bezala, batzordeen ordena aldatu behar dela uste dugu. Jakin badakigu kasu honetan alkateak duela planteamendu hori egiteko ahalmena, baina udalak 6 batzorderekin 9rekin bezain ondo funtziona dezakeela uste dugu. Zergatik ekarri dugu mozio hau? Kasu honetan ere, paper zaharrak erabili behar ditugulako. Orain dela urtebete, 2017ko uztailaren 26an, 9 zinegotzik, Udalbatzaren gehiengoak, idazki formal bat erregistratu genuen, hain zuzen ere, orain esaten dena esateko. “Uztailaren 9an, 2 urte igaro ziren abian jarri zenetik. Mahai gainean jartzen dugun berrikuspenak hainbat ezaugarri ukitzen ditu: batzordeen kopurua, edukia, ordena eta egutegia, baita ordainsariak ere, bertaratzeagatik. Hortaz, eztabaida hau irailen irekitzeko eskatzen dugu.” Eztabaida irekitzeko

- (1) *Cultura, euskara y educación*
- (2) *Area social: Acción social, mujer, igualdad, deporte, ocio y juventud*
- (3) *Area económica: Hacienda y especial de cuentas.*
- (4) *Administración municipal, trabajadores y Seguridad ciudadana*
- (5) *Turismo, comunicación, informática, comercio, empleo y desarrollo económico*
- (6) *Urbanismo, vivienda, obras y servicios*

Que la comisión de Hacienda y especial de cuentas sea la última en celebrarse cada mes.

En el resto de puntos (composición, remuneración, calendario mensual ...) no se proponen cambios.

Las razones para esta propuesta son las siguientes

- 1.- *Un ahorro económico significativo: unos 40.000 euros al año.*
- 2.- *Mayor flexibilidad para tratar los temas*
- 3.- *Prácticamente no altera las áreas en que se estructura la organización municipal.*
- 4.- *Que la comisión de Hacienda y especial de cuentas se celebre en último lugar ayuda-facilita un conocimiento previo de los contenidos a su valoración económica.”*

Toma la palabra D. Guillermo Vío para indicar: En principio, EHBildu ha presentado una moción para que en lugar de 9 comisiones se pase a 6 comisiones, y de nuevo se ha convertido en un ruego. Esta propuesta, en principio, supone un ahorro de 40.000 €/año a este Ayuntamiento y a toda la ciudadanía de Sopela y no supone carga de trabajo a los Concejales porque somos las mismas personas las que tenemos que estar en un sitio o en otro. Por otra parte, tal como ha dicho el Sr. Gerediaga anteriormente, consideramos que el orden de las comisiones hay que modificarla. Sabemos y somos conscientes de que en este caso es potestad del Alcalde hacer este planteamiento, pero creemos que se puede funcionar igual con 6 que con 9. ¿Por qué traemos esta moción? Porque también aquí tenemos que recurrir a papeles viejos. Hace un año, el 26 de julio de 2017, 9 concejales, mayoría de este Pleno, registramos un escrito formal en el que se decía exactamente lo que se está diciendo ahora. “El 9 de julio se cumplieron 2 años de su puesta en marcha consideramos esa revisión que planteamos afecta a diversos factores: número de comisiones, contenido de las mismas, orden y calendario de celebración, retribuciones por

ofizialki eskatu genuen. Udalbatzaren gehiengoak, 9 zinegotzik, idazki horretan eskatu genuen. Urtebete igaro da, eta eztabaida ez da ireki. Bozketa hori galtzera kondenatuta dago, mahai ganean jartzeko ere eskubiderik ez dugulako. Hori badakit, baina bada urtebete eskatu egin dela. Are gehiago, baliteke gure artean irizpide desberdinak izatea eta ados ez jartzea, baina 9 zinegotzik, legealdiaren erdian, ofizialki erregistraturiko idazkiaren bidez, eztabaida irekitzeko errespetuz eskatu dute, eta ez dute erantzunik jaso, eta batzordean gaia nola dagoen azaltzeko eskatu dugunean, dauden moduan ondo daudela erantzun digute. Horrela esan ziguten. Gutxienez, proposa daiteke: Elkar gaitzen, zer arazo duzue, zer zalantza eta abar. Hori eztabaida lasaia eta sosegatua da, eta batzorde berezi horretan egin ahal zen, Udal Administrazioa eta Langileriaren Batzordean edo egokitzen den tokian. Horregatik ekarri dugu. Legealdia laster amaituko da eta 9 gara une batean batzordeen funtzionamenduak hobetzeko puntuak dituela ikusi dugun zinegotziok.

Fernández andreak honako hau adierazi du: Erreguak ondo dioenez, une hartan berrikuspena eskatu zen. Berrikuspen hori ez da egin, ez da eztabaidatu, eta ondo esan duzunez, eztabaida hori proposamen hori edo guztiz bestelako proposamenak egiteko aukera izango zen. Eztabaidatze aldera, edozein gauza eztabaidatuko nuke, batez ere, barne-funtzionamenduari lotuta badago, hori guztiontzat osasungarria eta gardena dela uste dut-eta, baina eztabaidatu gabe proposamen bat egitea, asmoa zen bezala, bene-benetan, ez zait ondo iruditzen. Zergatik hori bai eta besteak ez? Horren harira, eztabaidatzeko prest nago, gai horren alde guztiak ikusteko, bat jartzen saiatzeko eta adostasunera iristeko. Horixe da legealdiaren hasieran mahai ganean jarri zen gaia; gehiengo batek udal antolamendu hori onartu egin zuen, eta ondoren, gure alderdiek gobernu taldearekin ados jarri ziren, eta abar. Kontu horiek patxadaz berrikusi behar dira, batzuk zergatik onartu eta beste batzuk zergatik baztertu zehazteko, eta abar. Gaia lasai aztertu behar dela uste dut.

Ruiz andreak zera adierazi du: Guri harrigarria iruditu zitzaigun, legealdiaren hasieran, hain txikia den udalerrri batek, 13.000 biztanlekoak, 9 batzorde zituela eta beste udal batzuetan, hala nola Bilbon, Barakaldon edo Santurtzin 6 batzorde egotea. Gu kontra egin genuen 9 batzorde izateari eta nik, zinegotzia naizenez,

asistencia. En consecuencia pedimos, que en el mes de Septiembre se abra este debate.” Pedimos oficialmente que se abriera el debate. La mayoría del Pleno, 9 concejales, lo pedimos en ese escrito. Pasa un año y no se ha abierto el mismo. Esta votación está condenada a ser perdida porque nosotros no tenemos ni derecho a plantearla. Eso ya lo sé, pero es que hace un año que está pedido. Es más, podríamos tener hasta criterios distintos entre nosotros y no llegar a acuerdos, pero si 9 concejales piden respetuosamente, con un escrito registrado oficialmente a mitad de legislatura que se abra el debate, no se contesta, se solicita saber en la Comisión cómo está el tema y se nos contesta que están bien como están. Así se nos dijo. Qué menos que decir: Vamos a juntarnos, qué problemas tenéis, qué dudas, etc. Eso es un debate tranquilo y sosegado y se podía hacer en una comisión especial para eso, en la Comisión de Administración Municipal y Personal o donde se considerase oportuno. Por todo eso lo hemos traído. Está acabando la legislatura y hay 9 concejales que en su momento vimos que el sistema de funcionamiento de las comisiones tenía puntos mejorables.

La Sra. Fernández, señala lo siguiente: Como bien dice el ruego, lo que en aquel momento se pedía era una revisión. Esa revisión no se ha producido, no se ha producido el debate y como bien has dicho, en ese debate podía haber salido esta propuesta u otras completamente distintas. Por debatir, debatiría cualquier cosa, y sobre todo, de funcionamiento interno porque considero que es sano y transparente para todos, pero creo que hacer una propuesta sin haber debatido como era la pretensión, francamente, de entrada, no me parece. ¿Por qué éstas y no otras? En ese sentido, estoy abierta a debatir, a ver todas las aristas de este tema, intentar consensuar y llegar a acuerdos. Esta es una cuestión que se planteó a principios de legislatura, hubo mayoría que aprobó esta organización municipal, posteriormente nuestros partidos han alcanzado acuerdos de gobierno etc. Son cosas que habría que revisar con calma, determinar por qué unas sí y otras no, etc. Considero que hay que verlo con calma.

La Sra. Ruiz, indica lo siguiente: A nosotros, en el inicio de legislatura nos sorprendió que un Ayuntamiento tan pequeño, de 13.000 habitantes, tuviera 9 comisiones, cuando en el resto de Ayuntamientos como Bilbao, Barakaldo, Santurtzi,

beste zinegotzi batzuekin (guztira 9 ginen) batzordeen kopurua 6ra jaitea proposatu genuen, gure iritziz, edukirik gabeak zirelako, eta, izan ere, alferrik xahutzen den dirua delako. Diru hori etxebizitzak alokatzeko laguntza handiagotzeko erabil liteke, horretarako 40.000 € baino ez baita bideratu, 57 eskatzaileen artean banatzeko, eta ondorioz, haietako batzuk laguntzarik gabe geratu dira. Horixe da gure proposamena. Diru hori, soberan dauden batzorde horiek, etxebizitzak alokatzeko laguntzetara bideratu. Ontzat ematen dugu 6 batzorde izateko proposamena, edukirik gabeak direla uste dugulako.

Alkate jaunak zera erantzun du: Hitz egiten azkena izan zarenez, eta entzun berri dudanez, galdera bat egingo dizut: badakizu nolakoa izan den alokairu laguntzetara bideratutako aurrekontu-partida betearazteko maila? Ruiz andreak erantzun dio, egiaztatutako datuen arabera, alokairu laguntzetara 40.000 € bideratu dela eta 57 eskaera jaso direla. Alkate jaunak hainbat aldiz errepikatu du galdera, eta Ruiz andreak gauza bera erantzun dio behin eta berriro, eta gaineratu du aurrerago jakingo dela zenbat tokatzen zaion biztanle bakoitzari, teknikaria lanpetuta dabilelako, eta zenbatekoak irailan, urrian, azaroan edo abenduan emango direla uste du. Portzieto, teknikariari laguntzeko ere eskatu genuen. Teknikariari elkartasuna erakutsi genion.

Alkate jaunak erantzun du: Eta nik zuri elkartasuna, azala behar baita esaten duzuna esateko. Jendaurrean baieztatu duzu osoko bilkura batean laguntzetarako ez dela diru nahikoa eman, eta ez dakizu zenbat diru jarri den, zenbateko laguntzak eman diren, dirua soberan geratu den ala ez, soberan geratuko den, eta abar. Barregarria iruditzen zait osoko bilkura batean, gaia serioa denean, erabateko ezjakintasunarekin hitz egitea, eta kalifikatzaileak niretzat gordeko ditut. Batzordeen ordenari, eta kasu honetan, Ogasun Batzordearen ordenari dagokionez. Batzorde horretan udalaren ekonomia-kudeaketaren arloko gai zehatzak lantzen dira, ez beste batzordeetako gaiak. Bestalde, teknikariak hil bakoitzaren gainerako 30 edo 29 egunetan daude, eta batzordearen gai-zerrenda bidaltzen denean, ikusten duzue zeri buruz hitz egingo den. Batzordeak 3 egunetan egiten dira, eta, nire ustez, guztiok daukazue denbora, Ogasun Batzordearen ondoren egiten den edozein batzordetako gaiaren inguruko zalantzak izanez gero, horiek galdetzeko. Teknikari guztiekin hitz egin

